kontuz blai

Antoniano Ikastetxearen aldizkaria.
15.alea.
2016ko ekaina

IBAITA, S.L.
Fontanería, calefacción
Baños y complementos

Gaztainpe, 2
20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)
ibaita@zarautz.com

Teléfono: 943 13 24 93
Fax: 943 13 39 80

Maitasunez Marti!

Orain urtebete 4 orrialde erantsi genizkion aldizkari honi, ikasturtean zehar egiten genituen gauza guztiei lekua egin nahirik. Aurten orri kopuruari eutsi diogu. Baina hainbat eta hainbat kontu albo batera utzi behar izan ditugu sartzen ez zitzaizkigulako. Ba ote dago hori baino seinale hoberik ikastetxearen osasuna eta martxa neurtzeko? 2015-16an ere aurrera egin dugu dozenaka proiekturekin. Erronka ugari izan ditugu esku artean. Eta ikasturte hau bukatzerako 20016-17an jarrita ditugu gogoak eta asmoak. Gure lana etenik gabe hobetzen saiatzeko ahaleginak egiten ari garelako. Konformagaitz. Martikorena gure zuzendaria izan zen bezala. Beti hobekuntza eta aldaketa bultzatzen. Ikastetxeari emana. Balio bezate lerro hauek berak egindako bere lana ohoratzeko. Ematen erakutsi zigun berak. Eta ematen jarraituko dugu guk. Maitasunez, Marti!

Con cariño, Marti

El año pasado añadimos 4 páginas a esta revista queriendo hacer un hueco a todas las actividades que realizamos a lo largo del curso. Este año hemos mantenido el número de páginas, pero hemos tenido que dejar a un lado un buen número de asuntos porque no teníamos suficiente espacio. ¿Hay mejor indicador de la salud y marcha del centro? Y antes de finalizar este curso, ya tenemos puestas nuestras ganas e intenciones en el curso 2016-2017. Porque somos inconformistas y estamos esforzándonos continuamente en mejorar nuestro trabajo. Seguimos la estela del que fue nuestro director, Martikorena; siempre promoviendo la mejora y el cambio. Volcado en el colegio. Sirvan estas líneas de homenaje a su labor. Él nos enseñó a dar, y nosotros continuaremos dando. Con cariño, Marti.

aurkibidea

4-5. HHko txokoa: Baratzetik azokara
6. Mindfulness-a eskolan
7. HHko txokoa: Sei txiten istorioa
8-9. Five days to dance
10. Tertuli literarioak Lhn
11-16. Urtea argazkitan
17. Ikasketa-zerbitzua
18. Lagun txiki, Lagun handi
19. Adimen Anitzak
20-21. Berrikuntza pedagogikoak
22. Euskara kafeak
23. Gurasoen txokoa
24. Eskolaz kanpoko ekintzak
25. Kirol topaketak Aste Santuetan
26. 4. DBHko ikasleen agurra

Antoniano Ikastetxea
20800 Zarautz
Telefonoa: 943 830 286

TIRADA: 700 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1378/02
EDITOREA: Antoniano Ikastetxea
PUBLIZITATEA: Antoniano Ikastetxea, 943 830 286
MAKETATZAILEA: Gertu Koop. (Zubillaga) Oñati
INPRIMATEGIA: Gertu Koop. (Zubillaga) Oñati

BARATZETIK AZOKARA, AZOKATIK GURE ETXEETARA

Askotan gure etxeetan ditugun elikagaien jatorria ez dugu ezagutzen. Horregatik, gure eskolak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz, baratza eta bertako fruitu eta barazkiak gertutik ezagutu nahi izan ditugu oraingoan. Fruten jatorria eta gure etxeetara iristeko jasaten duten prozesua ikusi dugu hain zuzen.

Hori horrela, udaberriko eguraldi onarekin batera HH1 eta HH2ko haurrak elkarrekin baratza miatu genuen une atsegin bat igaroaz. Txiki eta handi, denok elkarrekin zaindu behar dugun baratza aztertu eta mimatuaz.

Beste batean, handienak, herriko azokara hurbildu eta denentzat fruta ezberdinak erosi genituen, hala nola, sagarrak, platanoak, meloia, marrubiak, udareak, mahatsa... Ondoren erakusketa txiki bat ere prestatu genuen beraien erosketen esperientziak txikienei azaltzeko asmoarekin.

Bi jarduera hauek borobiltzeko helburuarekin eta elikadura osasuntsua bultzatuaz, mazedonia goxo eta freskagarri bat prestatu eta jan genuen!

BEJONDEIZUELA!!!

MINDFULNESS-A ESKOLAN

Mindfulness-a (arreta osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan. Gai honen inguruan formakuntza jaso dugu ikastetxeko irakasle talde batek ikasturte honetan.

Mindfulnessa-a orainean egotea da, era kontziente batean, gertatzen dena ulertu nahian, jarrera irekiarekin.

Abilezia hau garatzeak entrenamendua eskatzen du. Praktikatzeko une aproposak aukeratzea komenigarria da, haurrak aztoratuta daudenean, azterketa baten aurretik edo ikasleen artean gatazkak sortzen direnean erabili daitekeen tresna da.

Helburua buru oreka lortzea da, lasaitasunaren beharra hasetuz eta gure gorputza baretuz. Aldi berean egunerokotasunean praktikatuz, kontzentrazio maila hobetzen da, ikasleek oldarkortasun gutxiagoz jokatzen dute eta pertsonen arteko harremanak hobetzen dira.

Hau lantzeko gure eguneroko programaketan ekintza desberdinak txertatu ditugu, arnasketak, gorputz miaketak, hamaiketakoa era kontzientean egitea zentzu guztiak erabiliz, mandalak margotzea, igela bezala eseri eta isiltasunean gelaz kanpoko soinuak entzutea.

Mindfulness-a eguzkia gure azalean esperimentatzea da. Gure matrailetan zehar txirrista egiten duten tanta gazi horiek dastatzea. Gure gorputzean dagoen suminduraz ohartzea. Alaitasuna eta tristura gertatzen diren unean esperimentatzea. Horrekin ezer egin beharrik gabe, berehala erreakzionatu gabe edo zer pentsatzen dugun adierazi gabe. Mindfulnessa-a orainean adeitasunez presente egotea da. Momentu bakoitzean.



Beraz, denok, lasai eta erne igel bat bezala!!!

Sei txitatxo izan eta bat galdu...



Guk ez dugu txitarik galdu, ez horixe! Izan ere, izugarrizko esperientzia polita bizi dugu eskolan izan ditugu eta!

Asteazken goiz batean eskolara iritsi eta hura ezustekoa! Geletan arrautza bana topatu genuen.

Hasiera batean, gela bakoitzean arrautzatxoa zaindu genuen, txitak jaiotzeko zain.

Baina ostirala iritsi, eta asteburuan jaioz gero bakarrik sentituko zirela pentsatu genuen eta horregatik guztiak elkarrekin, goxo-goxo, ipini genituen. Gu zain eta zain…

Asteburua zain igaro ondoren astelehenean itzuli ginen eskolara, gure arrautzekin zer gertatu ote zen jakiteko irrikitan. Eta hara non!

TXITAAAAAAKKKKK !!!!!!!

A ze festa izan genuen astelehen goizean gure pasiloan, haur guztiok, irakasleak, garbitzaileak, gurasoak, zaintzaileak, aiton-amonak…. den-denak txitei begira!!

Guztiok nahi genituen gure gelan eduki… baina denon artean adostu genuen gelaz gela txandaka zainduko genituela. Eta bai egin ere.

Gelan izan ditugunean, jaten eman, ura eman, lastoa aldatu, beraiekin jolastu, begiratu, ukitu eta abesti eta ipuin politak kontatu dizkiegu.

Ostirala iristean, ordea, txitatxoak oporraldia amaitu eta oilategira itzuli behar genituela konturatu ginen. Izan ere, oilategia da beraien bizitokia; han handituko dira eta naturaren zikloa berriro hasiko da.

FIVE DAYS TO DANCE

Gabonetako oporretatik itzuli ginenean, proiektu zoragarri honetan murgilduta egon ginen urtarrileko lehenengo astean; ezinhobeto hasi genuen 2016. urtea LH6. eta DBH1. mailek.

Astelehen horretan, Wilfred eta Amaia, holandarra bata eta euskalduna bestea, gure gelara sartu zirenean, 5 egun genituela oholtza gainera igotzeko eta dantzatzeko iragarri ziguten. Denbora laburra baina erronka handia: "*pertsonak mugituarazi munduak paralizatu egiten gaituenean, munduak hegoak mozten dizkigunean...*"

Proiektu honen helburuak sinplea dirudi: dantza antzeztu bat egitea haur eta gazteekin. Hori egiten duten bitartean, ordea, «*modu naturalean*» bultzatzen dituzte hainbat eta hainbat balore. Besteak beste, batasuna, taldearen garrantzia, ardura pertsonala, errespetua, lehiakortasun eza eta norberarengandik onena ateratzea. «***Elkarrekin dantza egiteko gai baldin bagara, elkarrekin bizi gaitezke***». Esaldi horrekin laburbiltzen dute dantzariek proiektua.

Hizkuntza hori baliatuz, askotariko arazoak lantzea dute beste helburua *De Looperseko* kideek. Izan ere, «*koreografia bat ez da dantza soilik; zerbait gehiago da*», zehaztu zuen holandarrak. Antonianoko gazteekin landu zutenak ere bazuen oinarri sakona: toki batetik bestera lekualdatu behar duen talde baten bidaia irudikatu zuten. «*Bizi diren lekutik aterako dira, beste leku baten bila, euren jaioterrian ezin dutelako geratu*».

Gaia berehala barneratu zuten gure ikasleek.

Hori, bereziki, konposizioaren atalean ikusi zuten koreografoek. Puntu horretan, gazteei azaldutako egoera hori euren kabuz interpretatzeko eskatu zieten. «*Kasu honetan, talde baten bidaia irudikatu behar dute. Horiek kilometroak eta kilometroak egiten ari dira oinez, beste leku batera heltzeko. Guztiak daude nekatuta, elkarri lagundu behar diote. Talde txikitan banatuta, gazteek euren interpretazio librea egin behar izaten dute*».

Bost egun izan ziren, bost egun biziak, desberdinak, sakonak eta aldi berean magikoak. Ikasleak euren betiko roletatik atera ziren, ausartak zein lotsatiak, denak bat egin zuten koreografia lantzeko.

Amaierako ekitaldia ikustera bertaratu ginenok esan dezakegu bere egin zutela koreografia eta bere egin zituztela gure bihtozak, hunkituak, ikutuak... emozioz beteriko ikasleak ikusi genituelako. Ozen eta garbi esan zutelako «*Utz iezaguzue hegan egiten».*

TERTULIA LITERARIOAK

Zeinen ederra den liburu on batekin gozatzea. Are eta hobeagoa beste batzurekin elkarbanatzen badugu.

Horixe da, aurtengo neguan gure ikastetxeko zenbait ikasleek egin dutena tertulia literarioaren esperientziarekin batera.

Euskal idazle baten obra oinarritzat hartuta, Kirmen Uriberen " Garmendia errege", astean ordubete eskaini diote hilabete eta erdi batean bizipen honi.

Astero, irakurri beharreko orri kopurua adostu eta bertatik txatal bat aukeratu behar izan dute ikasleek.

Aukeraketaren zergatia oso zabala izan da; aukeratu dituzte poematxoak estekikoki ederrak iruditu zaizkielako, aukeratu bestelako paragrafoak atsegin duten bizipen bat gogora ekarri dietelako, aukeratu halako hitz batzuek ahaztu nahi zuten zenbait gertakari gogora ekarri zaizkielako, aukeratu zenbait pertsonaien jokaera salatu edo goretsi nahi zutelako...

Kontua da aukeraketari arrazonamendu bat lotu behar izan dietela, ondoren besteei azaltzeko. Honela, eztabaidarako bidea zabaldu zaie eta, sinetsi irakurle, gai interesgarriak jorratu dituztela (auto-konfidantza, interesen arteko tira-birak, bulling-a, animalien eskubideak, gurasoekin dituzten harremanak, beldurrak...).

Harrigarria da hamar urte inguruko neska-mutilak gai hauen inguruan hausnartzen eta iritzia ematen entzutea. Bai, ongi esan dut, entzutea, arma horixe izan baitute eskuartean, hitza.

Hitza izan dute, komunikatzeko gaitasuna erakutsi dute, espazio bat izan dute, modu aske eta demokratiko batean, beraien sentipen, beldur, esperientzi eta abarrak azaleratzeko.

Honela, modu kolektiboan aritu dira, alegia, " nik" pentsatzen dudanetik " guk" pentsatzen dugunerako prozesua abian jarri da eta talde kohesioa indartu da.

Liburu bat irakurtzean irakurleak egiten duen interpretazioa bakarra eta berariazkoa izaten da. Aldiz, besteenak entzutean, bestelako bideak deskubritzen dira norbere ibilaldiak aberastuz.

Honela ibili gara, ostiral arratseko saioa noiz iritsiko zain, irrikaz, ilusioz, gogotsu... jarduna noiz errepikatuko zain.



gabinete laguntza

asesores legales y tributarios

Foruen kalea 4 bajo
20800 Zarautz

Tel. 943 894313
Fax 943 130104

mail gabinete@laguntza.com
web www.laguntza.com

15-16 ikasturtea argazkitan

LH 5ekoak. Irribartsu. Alai. Jostari.

HH 2koak baratzera bidean.



Sua! Sua! Lasai, salbu gara eta!

Piratak datoz, piratak!

KOPI ONA

KOPISTEGI ETA KUADERNAKETA

Fotokopia T/B eta Koloretan
Kuadernaketa - Plastifikatuak
Planu berregintza
Fax zerbitzua

Donibane Plaza 6. Tel./Fax: 943 13 20 59
20800 Zarautz - Gipuzkoa

Garcia
Edari Banaketak
943 834 969

15-16 ikasturtea argazkitan

Zarauzko kaleak alaitzen HH 4koak.

Altxor bila ote dabiltza HH 5ekoak?

Hau da hau uzta! Eskolako txikienak jolasean.

LH 1ekoak garai urrunetara bidaiatzen, Arotz Enean.

LH 1ekoak bagoaz aurrera olatuekin batera.

Dena niretzat izango ote da?

AUDIONICA

OPE-RPS 82/07

ENTZUMENEAN ADITUAK
Phonak zentru baimendua• Entzumenaren azterketa • Audiofonoak • Zarata eta uraren aurkako tapoiak • Laguntza teknikoa

Easo, 7-1ºC • Tel.: 943 43 03 22 • 20006 DONOSTIA
www.audionicadonostia.com
E.mail: audionica2@hotmail.com

INSTALACÍON DE VENTANAS
Sagasti
LEIHOAK
ROBERTO SAGASTI
Tel. 943 13 00 77
Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

ARANTZA LORADENDA
Arantza Zufiria
Patxi Iraola
Lege Zaharren Enparantza, 2
Tel. 943 13 21 33 · Zarautz
www.arantzaloradenda.com

BAR
Otamendi
MUSIKA PLAZA
ZARAUTZ
Betikoa
"El de Siempre"
943134928 663912300

SOS. LH 6koak larri.

Uretara bidean DBH 3koak Zuhatzan.

DBH 2koak Arotz Enean, elurrez inguratuta.

Guk euskaraz eta zuk? LH 5ekoak txokolate janean.

Gora eta gora beti, Pagoetara bidean.

ADILUR

ADILUR S.L.P.

Administración de Fincas

GIPUZKOA KALEA, 49 BAJO 20800 ZARAUTZ
Tel. 943130856 Mov. 610743906 Fax. 943535020 adilur@adilur.com

GAMAVA
CONSTRUCCIONES & SERVICIOS

661 674 007
661 674 006
Construcciones y Servicios de Limpieza

UREÑALEIHOAK

Carpintería metálica profesional

Con más de 30 años de experiencia en el sector de las ventanas, Ureña Leihoak te ofrece las nuevas series Premium en Aluminio y PVC.

Tenemos nueva web
www.uleitxi.com

Zigordia, 44 · 20800 ZARAUTZ, Gipuzkoa · 688 639 664 · contacto@uleitxi.com

SANTA BARBARA
Restaurante –Jatetxea

Nafarroa kalea, 26 • 20800 Zarautz
Erreserbak 943 83 29 93 Reservas

15-16 ikasturtea argazkitan

Paristik datorren artista bat naiz ni. HH 3koak kale nagusian.

LH 6koak Irrisarrin, lagun berriak egiten.

LH 4koak Zerain herria ezagutzen.

Sorpresa! LH 6ko ikasleak Pagoetara bidean.

DBH 2koak Siriarekin bat eginez.

LH 3koak Pagoetan, pozik.

Bizkaia 17 bajo. 20800 ZARAUTZ
www.esteticamay.com
estetica_may@hotmail.com
May
Amaia Ruiz
ongizate eta estetika zentroa
mm medestec® medical & aesthetical technology
INDIBA
943 833 721
649 235 867
esteticamay
esteticamayzarautz
esteticamay

moor SURF DENDA
Bañeru kalea, 1 - 20800 ZARAUTZ - Tel.: 943 005 369
moordenda@hotmail.com

danetikaroztegia
ANGEL ESNAL ALBENIZ
615 702 053
tel. 943 13 17 82
fax. 943 83 15 11
angel@danetik.es
Ubegun ind. pab. 1-2
20809 AIA (Gipuzkoa)
danetikaroztegia.com

MI PC INFORMATICA Y OCIO
Luis Antolín Espada
Técnico especializado
ZARAUTZ · Iturribide nº2 Bajo
Tfno: 943 02 11 96
info@mipcinformatica.com
www.mipcinformatica.com

ikasketa zerbitzu solidarioa

Ikasketa-zerbitzua metodologia hezitzaile bat da, neska-mutikoen eta nerabeen taldeetan erabili ohi dena. Eurek hartzen dute protagonismoa, komunitatea hobetzera zuzendutako ekintzak planeatuz eta garatuz, ekintza solidario eta sozialki erreibindikatiboen bidez gauzatuta, batez ere ingurunean detektatzen direnei edo herritarrek sentitzen dituztenei begira.

Proiektu bidezko metodologia bat da, ingurune errealean ezagutzak, trebetasun psikosozialak eta jarrerak mobilizatu, indartu edo ikasteko aukera ematen duena, horrek ikasketa esanguratsuak sortzeko baldintzak ezartzen baititu. Gainera, egiten den ekintza motak, komunitatearentzako zerbitzuak, lagundu egiten du taldeak balioetan oinarritutako heziketa zer den ulertu dezan.

Proiektuak DBHko 2 maila derberdinetan gauzatu ditugu erlijioko irakaslearekin, pastoral taldeko eta gurasoen laguntzarekin.

2DBHkoekin:

Lagun txiki- lagun handi.

Gabonetako Jostailu bilketa. Etekinak, Frantziskotarren Tau fundazioak Rabaten duen umezurztegirako zuzenduko dira.

Janari bilketa, Saharautz elkartearekin elkarlanean.

Siriar errefuxiatuei laguntzeko kanpaina.Oinak lehorrak izan ditzaten botak jaso eta bidaltzea. Lesbosen gure ikasle ohien Hitzaldia.

4DBHkoekin:

Herriko hainbat familien beharrei erantzuteko asmoz, Caritaseko eta Nagusilaneko boluntarioekin batera janari bilketari ekin diogu herriko Elikagai Bankua ornitzeko.

Gure ikastetxeak Ikasketa zerbitzu solidarioen alde egiten du apustu, aukera ezin hobea eskaintzen du baliotan eta herritartasunean hezteko. Talde ekintzen bidez lortzen da errealitatea eraldatzea, gogoeta kritikoa sustatzea, eta eskola eta gizartearen arteko harremana hobetzea.



LAGUN HANDI- LAGUN TXIKI

Aurten, ikasketa kooperatiboa eta adimen anitzak ondo nahastuta, hauxe da gure eskolan egin dugun proposamen berria: LAGUN HANDI-LAGUN TXIKI.

Bost astez, gure ikasle "handiak" (LH5 eta DBH2ko ikasleak) gure ikasle "txikiekin" elkartzen ziren astero astero, aurretik antolatutako ekintzak aurrera eramateko. Denetik egin dugu! Elkar ezagutu, jolastu, sortu, manipulatu, paseatu… eta batez ere, IZUGARRI GOZATU!!!

Zenbait adituk dioen moduan, adin aniztasunak guztientzat aberastasuna dakar, sozializaziorako aukera anitzak eskaintzen ditu eta ikasleei rol ezberdinak hartzeko aukera eskaintzen die.

Aberastasuna, bai, zergatik?

Txikienek nagusiagoak direnengandik ikas dezaketelako eta nagusiagoek txikienei azalpenak ematean, hausnarketa prozesu sakonean murgiltzen direlako, bitartekari edo aditu rola izanaz momentu batzuetan. Ume nagusiek txikienen zaintzarako aukera bikaina izango dute. Hala bada, autoestimu eta autokontzeptuari begira rolen aldaketa hori oso onuragarria da.

Gaur da eguna, askok eta askok eskolan topo egiten dutenean, oraindik, elkar besarkatzen dutena!

"Gehiago ikasten dugu bizi dugunetik, esaten digutenetik baino".

ADIMEN ANITZAK

ADIMEN ANITZEN inguruko teoría praktikan jarri dugu ikasturte honetan. Teoria honek adimen linguistiko eta logiko-matematiko ezagunez gain, honako adimen hauek gehitzen ditu: espazioarena, musikarena, gorputzarena, pertsonen arteko harremanena, norberarena eta naturarena.

4. mailako ikasleok, "Tolosako txontxongiloak" gaia hartuta ikuspuntu desberdin eta anitzak jorratu ditugu. Norberak dituen gaitasunak eta ahalmenak aurkitu ondoren, bizitza errealeko arazoetan oinarritutako ikasketa bizitzeko aukerak sortuz. Horrela, ikaslea nabarmentzen den adimenaren bidez, beste 8 adimenen inguruko esparru bakoitza esperimentatzeko aukera izango du.

Hori dela eta, ikasle bakoitzaren interesak eta talentuak kontuan izan ditugu. Egin ditugun ariketa horietariko batzuk hauek izan dira: dantzak, antzerkiak, jolasak burutu , buruketak sortu, informazioa aurkitu, gutunak idatzi, koreografiak sortu, mapak aztertu, txontxongiloak egin, abestu....

ADIMEN ANITZAK paleten bidez lantzea proiektu dibertigarria eta oso aberasgarria izan da denentzat. Bai horixe!!!



BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA

Aurrera goaz Antoniano Ikastetxean txertatzen ari garen berrikuntza pedagogikoekin. Iazko aldizkarian Adimen Anitzen inguruan informatu genizuen. Esan genizkizuen teoria horren nondik norakoak eta oraingoan teoria hori kontuan hartuz aplikatzen ari garen berrikuntzen berri eman nahi dizuegu.

Adimen Anitzen ikuskera honek hezkuntza ulertzeko ikuspegi desberdina eskatzen du, eskola eredu berri bat. Gure erronka eskolan adimen guztiak lantzea da, ikasle bakoitzaren interes eta abilitateetatik abiatuz eta geletako aniztasunari erantzunez, askoz emaitza hobeagoak lor ditzakegula sinesten dugulako.

Aurten iaz zuzendaritza taldeak jasotako Adimen Anitzen teoriaren inguruko formazioa klaustroari zabaldu eta bertan ikasitako teknika eta jarduera mota ezberdinak etapa guztietan aplikatzen hasi gara.

Adimen Anitzak modu askotara landu daitezke eta adinari ondo datorkion ekintza ezberdinak martxan jarri ditugu ikasturte honetan. Hona hemen egindakoaren laburpen azkar bat.

Ikasketa Kooperatiboa

Ikasketa kooperatiboa Adimen Anitzak lantzeko lan metodologia bat da. Aurrez ere lanean hasiak ginen modu honetan HH eta LHko etapetan, baina ikasturte honetan lan egiteko modu hau DBHra ere zabaldu dugu.

Ikasteko kooperatu, kooperatzen ikasi!

Paletak

Gai baten inguruan landuko dugun proiektu bat da Paleta. Proiektu honetan banan bana , 8 adimenetako bakoitza lantzeko gutxienez jarduera bat diseinatu eta programatzen da. Ikasleei horien berri ematen zaie, eta modu horretan 8 adimenak lantzeaz gain, ikasleak hori egiten ari direnaren kontzientzia hartzen dute.

Gustora aritu dira, bai ikasle eta bai irakasleak ere. Ikasturte honetan HH eta LHn hasi gara. Datorren ikasturtean DBHn ere bai!

Proiektuka lanean

Proiektuka lan egiteak ikaslea ikasketa prozesuaren erdi erdian kokatzen du. Lan ildo honetan ematen den ideiak partekatzea, sormena eta parte-hartzeari esker, askoz motibatuagoak daude ikasleak, eta ikasketa bera ere askoz esanguratsuagoa izaten da.

EKI proiektuak planteatzen dizkigun proiektuak bide hori ireki du DBHn. Beste etapetan ere ari gara planteamendu hau gero eta gehiago zabaltzen.

Pentsamendu errutinak

Ikasleen pentsamendua ordenatu eta zuzentzeko lantzen dugun pausu sekuentzia dira. Patroi sinpleak dituzte eta ikasleei pentsamendua egituratzen eta begi-bistan jartzen laguntzen die.

Etapa guztietan hasi gara erabiltzen ikasturte honetan.

Pentsatzen erakusten!

Ikasketa Zerbitzua

Gizarteari zerbitzu bat eginez asko ikas daiteke. Hori da lan ildo honen oinarria.

Ekimena, sormena eta parte-hartzea krisian eta etengabeko aldaketan dagoen gizarte batek eskatzen dituen tresna eta gizarte trebetasunak garatzen laguntzen du Ikasketa Zerbitzuak.

Parte-hartzea lan tresna bezala.

Eta datorren urtean...

Datorren urterako proiektu guzti hauetan sakontzen jarraitzeko asmoa dugu, noski, baina baditugu asmo berriak ere, argi baitaukagu berrikuntzaren bideari ez diogula bizkar emango.

1x1 proiektua

Badakigu gaur egun martxan dagoen iraultza digitala geratzeko etorri dela eta iraultza honek hezkuntzan eta gizartean eszenatoki eta aukera berriak sortzen dituela sinesten dugu.

Ekimen honen helburua ez da ikasle bakoitzak ordenadore bat izatea. Ordenadorea tresna bat gehiago izango da egiten ari garen metodologia eraldaketarako. Ezinbesteko tresna.

Gainera ziur gaude:,

DBHn erabiltzen dugun EKI proiektua hobeto lantzen lagunduko digula.

Ikasketa kooperatiboan sakontzeko bidean sakonduko dugula.

Ikasketa gehiago pertsonalizatzen lagunduko digula.

Ikasleen gaitasun digitala hobetuko dela.

Horregatik guztiagatik jarriko dugu abian 1x1 ekimena DBH1en: Ikasle bat- ordenagailu bat.

Aurrera goaz!

Sagrario Loiola: "Euskarari eguneroko bizitzan normaltasun tokia emateko elkartzen gara"

Astero, asteartero, kafe eta pasta batzuen bueltan gure ikastetxeko ama batzuk biltzen dira ikastetxeko liburutegian. Zertara eta euskaraz hitz egitera, euskaraz hitz egiten trebatzera. Denbora pasa. Sagrario Loiola da euskara kafea gidatzen duena. Bere inguruan eserita mintzatzen dira denak. Sagrariorekin hitz batzuk egin nahi izan ditugu ekimen honetaz.

Zer da Euskara Kafeak, Sagrario?
Astean behin ordu eta erdi elkartzen gara kafe baten ondoan euskaraz mintzatzeko, eguneroko gauzei buruz. Haurrak, gurasoak, azoka, kirola, eguraldia, surfa, hauteskundeak eta zenbait gai mota edo era ezberdinetakoak.

Noiz hasi zineten elkartzen?
2014ko urrian. Orain bi urte beraz.

Zenbat lagun elkartzen zarete?
Lehenengo urtean hiru. Aurten sei.

Jarraituko duzue elkartzen?
Noski baietz. Hori beraien esku dago. Batzuetan nahi izan arren, beti ez da etortzen berdin, hori beraien esku dago.

Zer esango zenieke gurasoei?
Poliki-poliki euskaraz mintzatzen ikasi nahi badute, gerturatzeko. Gu hemen gaude tokia egiteko prest.

Besterik?
Kontuan eduki hau ez dela ikastaro bat, titulu bat edo lortzeko. Ez dago etxeko lanik eta ez dago ezer prestatu beharrik kafe honetara etortzeko. Bakarrik lan egiten dugu praktikaren bidez, euskarari eguneroko bizitzan normaltasun tokia emateko.

Basilio Torres Ramirez

Admon. de Fincas Colegiado nº 770

basilio@bainmogest.com
www.bainmogest.com

B&a Inmogest

ASESORÍA • INMOBILIARIA
SEGUROS E INVERSIONES
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

ZARAUZ
(Zuhaizti Aholkularitza)
c/ Iturribide, 16 bajo
20800 ZARAUZ
T. 943 003 803 • F. 943 003 804

ORIO
c/ Baxoalde, 4 bajo
20810 ORIO
T. 943 573 693 • F. 943 573 694
678 261 680

PASAIA
c/ Azkuene, 22 bajo
20110 PASAIA
943 399 835

Beste ikasturte oparo bat

Balorazio hori egiten dugu AMPAko gurasook. Ilusioz eta gogoz eramaten ditugu aurrera egiten ditugun ekimenak. Horregatik, gurekin lan egitera animatu nahi zaituztegu, bai gurekin eta bai gurasoek parte hartu dezaketen ikastetxeko edozein taldetan: Gurasokide, Behatokia, Liburutegia...

Este año el AMPA ha participado en la **chocolatada del día del Euskera**, preparando el chocolate, como es habitual, hemos organizado **la Fiesta del colegio**, durante la cual se lleva a cabo una bonita jornada de convivencia entre profesores, alumnos y padres; hemos repartido un **premio de postales navideñas** de FEGUIAPA a una alumna de LH4 del centro, participamos activamente en las **jornadas de puertas abiertas**, y como complemento a las labores de pintura del patio que llevamos a cabo el año pasado, se ha hecho una **compra de material** (balones, porterías, canasta, pelotas, bolos, redes….) para que los más pequeños puedan disfrutarlos en el patio.

No queremos dejar pasar la oportunidad de recordar a José Luis Martikorena con unas entrañables palabras de parte de todos los que formamos el AMPA.

Antonianoko Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkiogu Martikorenari.

Batzuk bere ikasleak izan gara, batzuk eskolako langileak eta denok Antoniano Ikastetxeko gurasoak gara.

Berak bere bihotzean zeraman Ikastetxea.

Mila esker Martí!!

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK JOLASTUZ IKASI, IKASIZ GOZATU

ANTZERKIA, MEKANOGRAFIA, ALOHA, NENOOS , KID´S AND US... GURE IKASLEAK, BAZKALONDOAN ETA ARRATSALDEAN, BERAIEN GAITASUNAK LANTZEN JARRAITU DUTE IKASTURTE HONETAN ERE.

MEKANOGRAFIA (LH 5 – DBH4)

ZERTARAKO idazketa digitala?

Gero eta gutxiago erabiltzen ditugu papera eta boligrafoa eta horregatik

hamar behatzak erabiliz eta teklatura begiratu gabe abiadura eta zuzentazunez aritzea abantaila handia baita etorkizunerako.

Horretan jardun dute astearte arratsaldean eta ostiral eguerdian hainbat ikaslek eta irakaslek. Teklatu berezia, ordenagailua, kontzentrazio maila altua... Abiadura egokia lortu ote du norbaitek? Seguru baietz!

NENOOS
(3 eta 4 urtekoak)

Gorputza, garuna eta emozioak landuz ikaslearen garapena sustatzen duen programa. Horretan jardun dira ikastetxeko txikienetarikoenak, beti ere, naturaltasunez eta poztasunez irakatsita. Aipatzekoak dira dituen onurak: arreta eta memoria hobekuntza, arazoak konpontzeko gaitasunaren hobekuntza, autoestimua eta motibazioa handitzen ditu zoriontsu izateko... Gustora aritu dira!

ANTZERKIA

"Antzerkia" hasi zuten hainbat haurrek, zer eta nola egingo zuten argi eta garbi jakin gabe. Segituan hasi ziren, jolas ezberdinen bidez, eskultura bihurtzen, espia, erraldoi edota mamuen gisara oinez ibiltzen, taldekideen gorputzak manipulatzen eta beraien burua txotxongilo bilakatzen. Gorputzak eskaintzen dizkien aukera anitzak eta mugak ezagutzen jardun dira kurtsoan zehar.

Urrian hasiriko bidean ikasleak talde bilakatu dira eta saio bukaeretako inprobisaketatik antzerki txikiak sortu dituzte. Beraien sormen gaitasun paregabeaz baliatuz istorio ezberdinak idatzi dituzte eta, baita, gorputzaren lanketatik, ibilera eta ahotsa bezalako aspektuetan fokoa jarriz, pertsonaia anitzak eraiki ere, bakoitzak berea. Esperientzia ederra izan da benetan.

Aste santuetan ere zapatilak jantzita!

4. urtez jarraian, aste santutako oporretan kirol topaketak antolatu dira LH1-6 bitarteko ikasleentzako. Urte osoan zehar eskola kirolean entrenatzaile lanetan egoten diren entrenatzaileak izaten dira begiraleak. 30 ikaslez osatutako taldeak izaten dira. Adin bakoitzera egokitutako joko jolasak egiten dira hamaiketako orduaren aurretik, joko jolas tradizionalak, jolas kooperatiboak, irudimen jolasak… Hamaiketakoa egin ostean, joko librerako aukera eskaintzen zaie. Kirol ezberdinak praktikatzeaz gain, marrazteko aukera, dantza egitekoa, aurpegiak margotzekoa ematen zaie, haur bakoitzaren gustuak asetzeko asmoz.
4 egun izaten dira gure kirol topaketak. Egun batean irteera txiki bat egin ohi dugu Astira, biotopora, hondartzara… nola ez, jolas ezberdinekin partekatuz.

Azken egunean, adin ezberdineko ikasleekin taldeak osatzen ditugu eta jolas ezberdinen olinpiada bat egin ostean, hamaiketako batez agurtzen gara.

3 urte pasa dira DBH4 ko ikasleak, eskola kiroleko entrenatzaile laguntzaile rola hartzera animatu zirenetik. Gure ikasle txikienentzat eredugarri eta motibagarri dira euren ikastetxeko ikasle "handiak". Urte osoan zehar borondatez egiten duten lan zoragarria eskertzeko, kurtso amaieran stand up paddel egitera eta bazkaltzera eramaten ditugu. Beraiek ere eskola kiroleko jokalari izan zireneko oroitzapen goxoak oraingo ikasleei transmititzen dizkietelako, entrenamendu eta partiduetan asko laguntzen digutelako eta denok ikasten dugulako elkarlanean... ESKERRIK ASKO!

GERO ARTE

Ordenagailuaren aurrean eserita, zer idatzi pentsatzen. Bukatzen ari da. Udara oso gertu dago, eta lehenengo eguzki izpiek hau bukatu egingo dela gogorazten digute.

Zeinek esango luke eskolako korridore hotzak goizeko bederatzietan faltan botako genituenik. Zeinek, beste ikaskideen agonia aurpegiak hurrengo orduan matematika dagoela ohartzean. Zeinek, 13.10 etan eskaileratatik jaitsi eta bazkaltzeko zer dagoen asmatzera jolastea.

Arraroa sorta daiteke, baina eskola hau gure bigarren etxea izan da.
Umezurtz batzuk ginen, pelegrinak beraien etorkizun ezezagunak bilatzen; eta eskola honek modu batera edo bestera gure bideak gurutzatuarazi egin zituen.

Bideo bat ere badugu bidaiaren laburpen bezala youtuben link honetara sartuz:
https://www.youtube.com/watch?v=veLtJNPiRjI
Edo youtuben bertan SALOU 2016 idatziz.
Milaka momentu eta bizipen, milaka momentu partekatuta; kurtso amaierako bidaia hau bezala. Esperientzia ahaztezina. Bere gorabeherekin, baina beti elkarrekin.
Suntsitu ordez, indartu egiten duen lurrikar baten antzera.

Eta hemen jarraitzen dugu eserita.
Konturatzerako, ia bukatu dugu.

Eguzki izpi bat pausatu da gure orrian.
Iritsi da ordua. Bukatu da.
Baina ez hartu hau agur bat bezala; gero arte bat bezala baizik.

Nagore Egaña & Javi Zuzuarregui

Nagore: @naagooo
Javi: @javizuzuarregui00

GARCIA
AUTOBUSAK
Sergio - 609 47 94 78
Nafarro etorbidea
Leku-Eder Etxea 32 A /2-A
20800 ZARAUTZ
info@garciabus.com

arrivati gelateria
desde 1990
Zarauzko
Izozki Denda
arrivati
www.arrivati.eu

Francesena
sarraila denda
cerrajería
afilado amaestramientos cilindros
duplicado de llaves y mandos
zorrozketak giltza orokortuak
zilindroak giltzen eta aginteen
kopiak
olatarreta kalea, 1, bajo 20800
Zarautz Gipuzkoa
Servicio 24h.
apertura de puertas
ateak irekitzea
tel: 943 13 27 02
móvil: 650 89 74 97

iuri
GABINETE LEGAL Y TRIBUTARIO
Trinidade, 6 4. - ZARAUTZ (20800 Gipuzkoa)
943 894 358 www.iuri.eus gabinete@iuri.eus

en ulacia grupo cumplimos destinos, unimos personas.
Con Ulacia cualquier ciudad está más cerca, nuestra pasión es el transporte de viajeros por carretera, cumplir los destinos y unir a las personas.
Ofrecemos una amplia variedad de servicios destinada tanto a grandes organizadores de eventos y congresos como a particulares.
flota*
En Autocares Ulacia ponemos a su disposición una amplia gama de autocares y microbuses que se adaptan a las necesidades más exigentes, con la tecnología más avanzada y las ultimas novedades en seguridad y confort.
Bus82 74VP Std60 55 CONFORT 31 Std55 MICRO31 MICRO26VP MICRO18
* VISITE NUESTRA FLOTA EN www.autocares-ulacia.com
Ofrecemos una amplia variedad de servicios destinada tanto a grandes organizadores de eventos y congresos como a particulares.
Tem nam fugiae as quas alit la veles acernatiunt is velitation comnis sapictium quae. Et aut re non comni berro cusam quis moluptatur, abo. Ut velia nones sum lia plaut ipsa volorenis sim assimincte lamus minci conecto eos.

ULACIA Grupo
Zarautz 943 83 44 37
Altzola 7 - 3ªdcha - 20800 Zarautz. Gipuzkoa
info@autocares-ulacia.com
www.autocares-ulacia.com
Azpeitia 943 15 14 03
Loiolako Inazio 10 bajo - 20730 Azpeitia. Gipuzkoa
el transporte es ulacia.
las personas son destinos
MAN
ULACIA
ULACIA Grupo

zonas de encuentro
mobiliario alta dirección
divisiones originales
bibliotecas
equipamientointegraldeoficina
MANPEL
Ugaldea Industrialdea, Pab.11
20170 Usúrbil (Gipuzkoa)
T. 943 365 892
www.manpel.com